

# ARANTXA URRETAVIZKAIA, JOXEMARI ITURRALDE, BI IDAZLE BI IDAZMOLDE

## 1. SARRERA OHARRA

Arretarekin, eta estimuarekin, irakurri nahi ditugunak, aurrenaren *Zergatik panpox* (Donostia, 1983) novelaren bigarren “multzoa”, hots 9. orrialdetik 19. rainokoa, eta bigarrenaren “Erromesaren aztarna galdua”, Bilbo-ko Udalaren 2. Ipuin Sariketaren irabazle atera zena (Bilbo, 1982) dira (1).

## 2. IKUSPUNTUA

Esan duguna legez, lehenaren novela baten zatia da (nahiz “multzo” osoa, Arantxa-k “kapitulu” baten antza ematen diona, alegia) eta ipuin osoa besteara; prosazkoa, beraz. Garrantzi gehiago emango diogu, ostera, autoreen ikuspuntuari, generoon arazoari baino.

Arantxa-k era autobiografikoa darabil, edo, zehatzago esanik, barnebakar-hizketa, edota, nahi baduzue gehiago zehaztuz, *stream of consciousness* delakoa: hasi-hasikeran “gauero egiten dut ametsen bat” dio; *kontzientzia korronte*ari posibilitate guztiak atera nahi dizkio: haurren eztulak, ama izateaz gogoraerazten dio; honek, nolako disziplina exijitzen dion; honek, ez duela (edozein emakumeak = digresioa) horretan etsi behar. Beste adibide bat ipintearren, ikastolara garaiz heldu nahian doazelarik, kontrolak ote diren gogoratzen zaio; honek, grisak hiltzen dituztela; eta honek (= digresioa) zergatik akabatzen dituzten grisak zibilak baino gehiago, bere buruari galde eragiten dio.

Arantxa-ren ikusmoldea *inpresio*ka egina dela esango genuke: ez duela errealtatea begiraten, esan daiteke, beronek hura kolpatzen baino. Eraginez, erreakzionatu egiten du: “tea erosi beharko dut, a, eta arroza eta fruta. “Bere bost zentzumenak adi-adi daude: eztula “entzun” du, loaren bero mikatxa usaintzen du, “bularrak” semearena laztandu nahi luke, etabar.

Joxemari-ren narraketa hiru izenorde pertsonalengan sostengatzen da: lehen lerrokadan, “Bero kiskalgarria egiten zuen” irakurten dugu. Laster batean, “basamortutik zabiltza”, edo “Hunkitzen zaituen eta ezin espli-

---

(1) *Geroago*, Dudular titulu peko ipuin sorta eman zuen: ia-ia lerroz lerro ezarri zizkion hitzen, aditz-formen, ordenaren..., aldaketak, guztiok Iturralde-ren joera perfekzionistaren ezaugarri.

ka dezakezun zerbait”. Tarteke, lehen pertsona: “Aihertzen naiz esatera”, “Geroztik ez dut haren berri jakin”. Beste zenbaitetan, ostera, anitza edo anitz maiestatikoa (lehen pertsonan): “halaxe egin genuen fraidea eta biok”, edota “Gure erromesa bakarrik zegoen”.

Ez du nahi, dirudienez, izenorde pertsonal bakar batera mugatzerik bere ikusmoldea (irakurleak, berarekin, batera, pertsonak bana ditzan?), alde batetik; denborak ere, zein lehenaldikoak (zuen, zegoelarik...) zein orainaldikoak izan daitezke (doaz, zaituen, zaio...): narratzaileak egindako bidaia hain hur gomutatzen, non present sentitzen duen?

Iturralde-renean, ikuspuntua ez da inpresionist, alderantziz baino: deskripzioak ugariak dira eta aire errealistaz eginak; errealtatea arakatu egin nahi dela dirudi, menperatu nahi bailuen, eta erreflexioak pausatuko dira: Monastegian, ostilamendua “miatu” egiten du. Fadel-ek azalpenen bat ematean, “esandako guzti hau hobeki konpreni nahian” doalarik daku-sagu.

### 3. BIDAIATZEA

#### 3.1. Bidaien helburua

Pertsonaia biok egiten dute bidaia; amak eguneroko priesazkoa, erromesak udaldiko turistikoa. Arantxa-ren ama kaletarrak, etsetik ikastolara joan etorria egiten du. Honetarako, hainbat behaztopa gairitu behar; ordulariarekin borroka bizian ihardungo du, haurra iratzarten, gosaria prestatzen/ematen, jazten, gorputza apaintzen, kotxea gidatzen... Helburu hurbila, Antxon ikastolaratzea, lortu du. Helmuga urrunagokoa, Antxon hori arratsalde etxeratzea, eta, bion azpian dagoena, guzti horien egiteko gauza izatea da. Dirudienez, guztiok lortzen ditu, nahiz ez duen Txema-rik etxean, edo lortzeko itxaropen onak dauzka: “Jarrai, ez etsi”, hots egiten du.

Erromesaren bidaia, “desertura” da. Gairitu behar dituen oztopoak “beroa”, “jende arrotzak”, “erdiko hortza” falta zitzaion fraide gaztea, “eremu latzak”, trenetako bidaia “luzeak” eta “zarata”, “Fadel”-en iritziak... Egia esan, ez dirudi guztiz agirian dagoenik zergatik, zertarako..., abiatu den. Gainera, “azti” batek ez duela “atarramendu” onik aterako diotso. Azkenez, ba diosku narratzaileak berak ere: “Badakit, hala esan didatelako, portu ttipi hartan duda mudatan egon zela denboraldi batez oinazeturik. Geroztik ez dut haren berri jakin. Behar bada honuntz dator ahal duen gelditasunez.”

Beraz ba, ez dirudi garbi daukagunik zertara abiatu den: argiago delakotan gaude ez duela atarramendu handirik atera; nahiz eta ez dakigun berriz etorri denentz, ba dakigu, baina, “Gau hartan bertan erabaki zuela lurralde haik uztea, Euskadira itzultzea.”

#### 3.2. Bidaiaren egitura

*Zergatik panpox* novelako zatian, ordulariak zatikatzen edo distribuitzen du materia: “zazpiterdiak joak ez badira”, “zortziak laurden gu-

txi”, “zortziak”, “zortziak eta laurden”, “zortziterdiak”, “bederatziaik hogeia gutxi”, “bederatziaik laurden gutxi”. Antza denez, bederatzietan sartzen da semea ikastolan. Bederatziaik laurden gutxiagotatik aurrerantz ez du jotan orduak: “porteroa” aipamen da, gerotxoago “kontrola”, etxetik irteera eta kotxean jokaera seinalatuz.

Egitura, beraz, ziklikoa da, ez lineala, kontraerloju karrada berezia, eta baikorra. Gainontzekoa, ostera, *kaotikoa* da: kontzientzia korronteak edo idazkera “automatikoak” “agintzen” duenaren arauera moldatzen da kontakizuna: ustekabeen ager daitezke zein fraka zikinduak, zein labadorako jaboiairena, zein gailetak (2).

Erromesaren bidaiaren egitura (udaldiko) joan etorri turistikoarena da: toki topikoak bisitatzen dira, hala nola monastegia, Koran-a esposizioan, bisitari liburua izenpetzen da, treneko bidaiara luze eta zaratatsua, ziu-tateko eskaleak..., turistaren elkarriketa ihesiak, etabar (tartean, pasarte onirikoa “zaldi zuri” eta “arrano beltzarekin”).

Egitura lineala itxura baten. Baina ez dakigu ia bidaiaria sorlekura berriz itzuli denentz (espero den legez). Horrez gain, dituen elkarriketak, kasurako “azti” batekin, ber-irakurketa eskatzen dute.

Antza hartzen diogu, Arantxa-k bizitza kaotikoa diseinatzen duela. Joxemari-k, aldiz, Afrika alderako bidaiaren egiturari sinbolikotasuna ezarri nahi diola. Ez du, agian, bizitza margotu, interpretatu baizik.

### 3.3. Bidaiaren mezua

Antxon eta amaren goizeroko bidaiara goiztiar eta larrian, hainbat gai agertzen direla esan daiteke. Itxura denez, amak janari “naturalak” maite ditu: gailetak, fruta, naranja zumoak... “Nahiko zikinkeria” jan duela, ikastolan nonbait, diotso semeari, janari “artifzialak” salatu nahiz. Horrekin batera, eta indartsuago agian, *feminismoa* azpillerrokatzen da: amatasuna (seme eta Txemarekiko), emakumetasuna (gorputza jagoteko ardura hori) eta, batez ere, (emakume) *gaitasuna*: ikastola bidean, ba diotso haurrari: “bai trebea dela zure amatxo zahar-berria, ze uste zenuen ba, gizonezkoak bakarrik direla trebeak konduzitzen”.

Hauxe azkenau izan daiteke mezu nagusia, emakumeen emanzipazio, modernizatze edo *gauzatasuna*: dirudienek emakume orori hotseginez, idatzen du: “dohain hauek lortzen ez badituzue, jarrai, ez etsi, bestela ez duzu bizitzaren poza dastatzerik izango.”

Umea ikastolako atetan uztean, digresio batez amaitzen du pasarte guztia. Alde batetik, Antxon-ek mantentzen du ama. Bestalde, amak *sartzen* du bizitza guztia: “Landare bat naiz”, “ni, bizitza naiz eta ukitzen dudana guztia bizirik egongo da.” Ebanjelioaren erreferentzia argiago ezina da: “Ego sum resurrectio et vita; qui credit in me, non morietur in aeternum.” (Jn, 11, 25). Semearen aurreango poztasun hau geldi ezina zaio eta garraisi egin daroa: “geratu dadila mundua minutu batez”.

---

(2) Joan-etorria egunerokoa da: ziklikoa.

Erromesaren kasuan, erreflexioak konplexoago dira. Begira zer dioen ber-berak: “Luzaro egon zen horrela erromesa bere buruarekin gogoetan, hainbeste eginbeharreko galderari ihardespren egokia eman nahiean”.

Beherago ere honetaz, berriro, ihardungo dugun arren, hots ipuinaren sinbolismoaz, esan genezake, oraingoz, zerbait baronen gaiaz, nahiz ohar eta sujerentzia gisan. Ezina da, geuk uste, ipuinaren mamiaz jaubetzea, Homero-ren *Odisea*, Propp-en lanak, *Pott banda-ren* joera..., gogoratu barik. Pentsa dezagun, bada, erromesa urrutietara doala, ipuinetako heroeak bezala, Ulises behinola legez itsasoan zehar, bidaiatzeak berez duen xarmak hotseginik: “Gutziz pozik: hegoalderantz zoaz gau erdian tren ilun batetan Afrikako bazter ezezagunetik.” Horrez gain bidaian agertzen zaizkion zirkunstantzietan ikusiz-ikasiz zerbaitez ohartzen da. Paradoxa bada ere, “bazter ezezagunetatik” irakatsiak jasotzen ditu. Hau da, denboraz eta espazioaz erreflexioak egitera heltzen da: “Luzaro egon zen..., gogoetan..., bere burua kosmoen atalik ttipi eta nimñoena kausitzen zuelarik.” Solidaritateaz erreflexio esistentzialist kutsukoak egiten ditu: “itsua-ren” eszenak “batengandik besteenganako urruntasuna” gogora erazten dio; Euskal Herriaz hiru bat aldiz gomutatzen da, etabar. Baina, azken batez, “aztiaren” hitz latzak entzun behar ditu: “Egokiago zenuke zure herrira bueltatzea. Ez baituzu..., atarramendu onikan aterako..., laster gerla duzu zure herri horretan..., bertan esku hartzen duzula.” Eta guk narratzailearen hitz latzagoak entzuten ditugu: “Behar bada honuntz dator ahal duen gelditasunez.”

Ez dago, beraz salbabiderik? *Pott-banda-en* arrenkura bat horixe izan daiteke, eta horrelako zerbaiti buruz dihardu J. Kortazar-ek honako hau dioenean: “tant la poesia d’Atxaga com la Sarrionaindia han arribat a canviar l’orde lineal de la concepció del temps de la poesia sozial per un ordre circular: el de la desesperança.” (in *Reduccions (revista de poesia)*, Barcelona, 1984, 22.a).

## 4 FORMAREN ANALISIA

### 4.1. Hitzak, hotsak

Panpox-en textuari nongura dario palatalizazio expresiboa: “panpox”, “Antxon” “Txema”, “amatxo”, “aitatxo”, “txitxareak”, “muxu”, “potxolo”, “tximeleta”, “txuriak”, “pixa”, etabar. Horrez gain, zenbait aliterazio: “puskar batek trumoi batek baino”, “odol-lore-kolore-usaiez”.

Erromesarenean, ugariagoak eta “asmatuagoak” izan daitezke: “Hoztikara itzela”, “urbeltzetan opatuen kontra hanpurutsuki dabilen ontzixua zirudien” (3) edo esnatukeran “Lokamuts gaiztoa” dioenean. Edota onomatopeia hau: “Burrundara ozena (...) trumilka”.

(3) Hitz-kate hau oso-osoan eman zuen bigarren agitaldian ere: laket zitzaion.

## 4.2. Hitzak, hizkuntza

Arantxa-k hasikeran ematen du perpausa elkartu luze samarra. Enparaduak, esaldi laburrak dira, bakunak gehienetan, “inziso” eran eta asindefonez lotuak, barne-bakar-hizketari dagokionez. Segidako hauxe izan daiteke perpausa modeliko bat: “ze uste zenuen ba, gizonezkoek direla trebeak konduzitzen” (nagusia, konpletiba eta gerundioa). Bestalde, erreduzio edo forma a-pertsonalak ugariak dira: “esnatzerakoan”, “izateko”, “joatea”, “etxerakoan”, “meriendatzeko”, etabar. Aditz laguntzaileetan oinarritzen da gehien batez: “bitamina asko ditu” dio amak, ama kaletarrak, baserritarrak, agian, “dauzka” liokeenean. Aditz formak, horrez gain, elididu ere egiten dira: “jaiki bitartean”, “gosaldu bitartean”, “eutsi asensoreari”, “kendu zuk” etabar. Ama kaletarrak “labadora” esango du eta ez “ikuzkailua”, eta Arantxa-k, horretan, biderik artezena darama. Jauzi kualitatiboa egiten du, ostera, “ni hablar”, “sin falta” eta antzekoak esakeran. Inoiz, euskara traketsa ere izan daiteke: “kolakao berotu”, “ez du balio manta azpian sartzea”...

Guztiz alderantzizkoa da Iturralderena: aditz trinkoak ugariak, eta “kulto” airekoak, dira: “zerion”, “zioen”, “nenbilke”, “zaudeke”, “dantzuzu”... Gramatiketan idazle kultoek erabilten dituztela, baina ez direla hain herritar, esan ohi diren horiek: kontsekutibak (“hain da leku aparta..., non ez baita”...), erlatibozko erdal airea daukatenak: “atea..., zein horniturik baitzegoen”; konpletibak “ezen” batez hasiak: “ikusi zuen..., ezen..., behar zutela”...; kausazkoak “zeren” batez hasiak: “zeren ikusi baitzuen”; “bailtzan”, “baizihon” bezalako gonbaraketak...

Hura irakurri egiten da; haura ber-irakurri.

## 4.3. Hitzak, adierazle

### 4.3.1. *Lexikoa*

Goraxoago aitatu dugu amaren “kaletartasuna”. Entzun diogu inoiz Arantxa-ri, telebistaz ere, hiztegi horren erreibindikazioa egiten: *literatura* modu bat da: “katarroa”, “disziplina”, “fresko”, “regla”, “mantxa”, “martxan”, “labadora”, “asensore”, “bueno”..., esaten ditu: ez da filologoaren hizkuntza, “amatxorena” baizik.

Joxemari-rena, ostera, hiru mailatako hiztegi modutan, gutxienez, bana genezake: a) Ipar aldeko literaturakoa (galizismoak): “sable”, “kausitzen”, “kapera”...; b) Euskal literatura eta euskalki orotakoak: “erran”, “ihardetsi”, “apapuan”, “eskergea”, etabar. c) Hitz herritar zaharkituak: “leitu”, “inportik”, “pareta”, “krisket”... Prestamoak erabilten badira, hizkuntzaren barruan bizitza luzea dutelako izango da.

Orrialde desberdinen aurrean gaude: baino biok lortzen dute euron helburua, batak giro bizia eta besteak oparora lortu nahi izan bait dute.

### 4.3.2. *Singletasuna / oparotasuna*

Arantxa-k “esnatzen” errepikatuko du, edota “jan” “usaia”, “bitartean”...; “esnatzerakoan”, “esnatzen den”...; “jan duzu”, “jan fruta piska

bat” (orrialde berean, segidako lerro bitan), “usai berezi bat”, “usai bat du” (id.), “berotu bitartean”, “gosaldur bitartean” (id.)..., eta ihes egingo du sinonimoetatik, “a peste, fame et bello” bezala. Iturralde-k, aldiz maite-maite ditu, behinolako Axular-ek bezala: “aukaz eta goroldioz”, “oraldiz eta goroldioz”, “beldur eta ikara”, “ahul eta unaturik”, “zutik..., tente”, etabar.

Hura, P. Baroja bezala, bizitzaren bila doa abiadura bizian, inon pausatatu gabe; haura, barrokoago, bizitzaren pasarte bakoitzean geratzen da, begira, miatzen.

#### 4.3.3. *Hizkuntza, irudi*

Aitatu izan dugu, gorago ere, bidaiaren mezua arakatzean, Arantxa-ren metafora (biblikoa): “Ni, bizitza naiz”... “nire besotartean estutzen dudanak ez du sekula hotzik izango”. Amaren ihardunaldia kaotikoa da, baina dionisiakoa: gainezkako sentipen baikor hori biziaren sort burua da.

Arazo konplexagoa dakar Iturralde-ren orriak. Pasarteak barrabarra dira sinboliko.

##### 4.3.3.1. ERROMESA, ERROMERIAN

Hitz erromantzea (ikus “Roma”). Berceo-ren “hitzaurrean” bezala: “Todos somos romeros que camino andamos”.

##### 4.3.3.2. IPUIN BARRUKO IPUINAREN IPUINA

Odiseo noiz behinka loak hartzen du (eta ames dagi); herri ipuinetako heroek, berdin (ikus PROPP, Vladimir: *Morfología del cuento*, 42.ean). Lotan, erromesak ipuin osoa, bukatua, burutzen du, eta amesten duela amesten du (hiper barrokismoa): “Hala ere, uste dut hasten naizela lokuluxkada bat botatzen” dio amesetan.

Ametsa, autobiograliaren moldetan burutu du, perpausa bakunetara kasik oso-osoan mugatuz, eta Axular-en erreferentzia argi batez: “Neu naiz hobenduri bakarra. Neurea hoben guztia.” (4) Horrez gain, onirikoa izanik, hitz magikoz, eta sinbolikoz, eta herri ipuinen erreferentziaz bete-be-tea da: “zaldi zuria” eta “uholdeak” ikus in Propp, op. cit. 53.ean eta autore beraren *Las raíces históricas del cuento*, Madrid, 1974, 3.<sup>a</sup> ed., bereziki “El ayudante encantado” atalburua; “arrano beltza”, ostera, egungo euskaldunokin zerikusi handiagoa duena. Erreferentzia biblikoak, bestalde, “zazpi buelta” sintagmak, eta “uholdeak” eurak (5).

##### 4.3.3.3. URRUTIETARATZEA

Odiseo-ren moduan, Kixote-aren antzera, asago, sano asago abiatzen da. Ikus, irteera honi buruz, in PROPP, *Las raíces...*, “El aprovechamiento del héroe que parte” batez ere. Urrutiratze hori markatu nahi dute, geuk uste, Quadinatroum, Iran, Libia, Irlanda, Tebas, Jartum, Afrika..., bezala-

(4) Ikus AXULAR-ek: “Ordea eneak dira faltak, ene da hobena.”

(5) Ikus Josue-k Palestina-ri eman zizikion zazpi zitioak, Egipto-ko zazpi uholdeak...

ko toponimoek. Erromes modernoak, noski, garraio bide bereziak dauzka: “trena”, “kapsula”, 1000 “kilometro”... (Baina ez ahaztu “zaldia”).

(Ikus zein desberdin diren Antxon-en *eguneroko* bidaiia laburra eta erromesaren *apartekoa*.)

#### 4.3.3.4. ERROMESA, BILATZAILE

Herri ipuinetako erromesak, bere *erromerian*, betekizun desberdinak dauzka (ikus Propp, *Las raíces...*, “Las empresas difíciles” atalburua bereziki.)

Gurearena bikoitza dela esango genuke: Afrika-n zehar, desertuan barrena, “bilatzea”, “ikertzea”..., ote da? Herri ipuinetan, heroeak, ozto-poak gaudituez gero, saria irabazten du: hemen, oraindik betekizun “zaila-goia” agertzen zaio (6):

#### 4.3.3.5. ERROMESAREN ITZULIA EDO BETEKIZUN-DRAMA

“Aztiak” erakusten dio zein duen betekizun: “Zoritxarrez laster gerla duzu zure herri hortan, anker eta gogorra izango da benetan, bertan esku hartzen duzula. Joan zaitetz haruntza lehenbailehen hemendikan.” Behinola Edipo legez, esfingearena gauditzeaz gain, Herria askatu behar du izurrite orotarik, gerla bidez. Aurrera egingo al du?

(Ikus honetaz Propp, *Las raíces...*, 496 eta segidakloak.)

(Joxemari-k *Dudular* ipuin sorta hirutan banatzen du. Bigarrenaren hasierakoa da gure hau. Aurretik, atal guztiaren buruan, hitz hauek irakurten dira: “Now when he was lonesome for Paris he would remember Paris instead of going there. He did the same thing with all of Europe and much of Asia and Afrika.” (E. Hemingway).

#### 4.3.4. *Hitzak binaka*

##### 4.3.4.1. DOINUA/ERREFLEXIOA

Jartum-en “eresi erritmikoak” entzun ondoren, “desertuaren amaigabetasunaz” ohartu da. Geroago, “orkesta talde baten musika ez-titsua.” adituta gero, “auhenez, kexuz betea” ote den dago.

##### 4.3.4.2. ZARATA/ISILTASUNA

Jendetzaren “burrundara”, “trumilka” tasunaren segidan, “jendea isiltzen..., doan heinean”, gogoetan jarten da. Ziutatea “haundia eta zarata-tatsua”, “bozina ezin isilduz” dabil jendea. Zarata / isiltasuna, jendea bakartadea antitesiarri lotzen zaio. Fadel-ek itsuen konpetentziez hitzegin ondoren, “Isil isilik” doa.

Binarismo hori ikus daiteke, baita ere, “laguntzaileen” (“fraide zaharra” “itsua”, “aztia”, “eskaleak”, etabar) eta “arerioen” artean (“fraide gaztea”, jende “arrotza”, arabiera ez jakitea...), Euskal Herri txikia, euritsuia, ezezaguna eta basamortu zabala, beroa...

---

(6) Ipuin honetan, ez dago “emakumezkorik”.

#### 4.3.4.3. FINITOA/INFINITOA

Denbora eta espazioarekiko gogoetak ugariak dira. Desertuak “eter-nidadearen” sinbolo dirudi, “amaigabetasuna” da. Denborak ez du balio bera “desertutarren” eta gure artean: hemen ilargia bere “osotasunean” ikusten du. Heremu honetan “kosmoen atalik ttipi eta nimiñoena kausitzen” da. Experientzia limiteak dauzka hantxe: “Orduan gure erromesari iruditzen zaio han urruntasunean, gau beltzean, ortzea eta desertua batzen diren horizontean zerbait dirdiraz ikusi duela, zerbait berriren adierazgarri.” Noiz behinka, mistikoengan bezala, ba dirudi finitua/infinitoa deuseztatu eta eternitatea gozaten duela: “Luzaro egoten dira biok erdirabarrez, isilik, momentu egokiaren indar guztia dastatuz.”

Hildo honetan barrena, monastegiak eta heremutarren historiak (Te-basko Paulo, Antonio Saindua, Maria Egiptiarra, Pakomio, desertuko Simon...) (7) horixe errefortzaten ote datozen gaude: heremutarrek (geroko) zeruaren edo parusiaren “gaurkotasuna” suposatzen zuten: gero, “hermitak” (“hernitainoak”), heremu artifizial bihurtuko ziren.

#### 4.3.5. Hitzak, diseinatzaile

Arantxa-k, erretratoak eta deskripzioak jauzika eta kolpeka egiten ditu: “Antxonek ezutula” dagi, amak “bizarrak luzeegiak” ditu zangoetan, “batak urratuak” daude, “fresko egiten du”, etabar.

Joxemari-k monastegiko gela, monje gaztea, gaua..., deskribatzen ditu. Begira adibide bat: “Koloniar kafe honi aintzineko kutsu dotorea oraindik garbi nabari zaio. Oso garai eta zabala, paretak oro ispiluez hornatuak, marmolezko bost zutabe mardulek sabai urreztatua sostengatzen dutelarik. Zerbitzariak Nubiatic erakarriak txilaba zuriz eta kurlo gorritiz apaindurik”...

## 5. BUKATUAZ

Izenburuan gaztigatu dizuegunez, bi idazle eta bi idazmolde dira. Adierazkizun eta adierazle bi darabiltzate: bi helburuk bi medio dituzte eta bi bide bereziri darraikiote. Batarena —Arantxa-rena— irakurri egiten da, zer gertatuko, zertan bukatu zain gatzazkiola, eta, eskertu behar zaiona halako T. Agirre-k *Kresala* -ren atarian dioena da: “Arranondo”ko sardina bizi-biziak dakartzala, nahiz eta gatz garau lodiak kenduta. Bestearena, berriz, ber-irakurri egiten da, kontatua aitzakia da, eta aitzakia jostailu bihurtzen da: Ortega-tarrek ziotenez, hauek demaiguten plazera kontzeptuala da. Haiena, aldiz, sentikaria da.

A. Zelaieta

---

(7) Zein neurritan irrigarri edo ironiko?